

«‘Ezin zara kexatu’ bezalako esaldien zentzugabekeria azaltzen saiatu naiz»

Editoreak aurkezpenean esan zuen moduan, poeta berria da Hedoi Etxarte, aurreko lana atzean utzi eta bestela hasi dena, *Suzko lilia* (2008) idatzi zuen Hedoi Etxarterekin –edo beste inorekin– batere antzik ez duena. Jende xehea protagonista duten istoriotxo betea dator *Simplistak* (Susa) poema-liburu “panfletario eta manikeoa”, autorearen hitzetan.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Zure lehen poema liburuak eta honek ez dute batere antzik. Zer gertatu zaizu bidean?

Orain kontatu nahi ditudan gauzak kontatzeko surrealismoaren moldeak ez zidan balio, oso egozentrikoak direlako, metaforaz eta irudiz josiak.

Zuzenagoa izan nahi zenuen.

Inoiz ezin duzu kontrolatu irakurleak zer irakurriko duen, baina ez nuen nire buruarekin gustura gelditzeko aritu nahi. Lehen mundu gerratik hasi eta gaur arte izan diren errealisismoetatik ikastera jo dut.

Landu dituzun gaiengatik, baztertu duzu, beraz, surrealismoa?

Helburuengatik. Liburu hau ia kanpaina baten moduan pentsatu dut. Alegia, halako gaietara buruz hitz egin nahi dut eta horietarako modu eraginkorrenak bilatu ditut. Batzuetan lehen pertsonan kontatzea komeni zitzaidan. Besteren batean, akaso, txiste moduko bat asmatzea. Hurrengoan, ia mitin tonuan hobeto bibirildu dut, edo parodiatuz. Oso kontzientea izan da.

Sketch txikiak, eguneroko egoera errepikakor horiek oso erakargarriak iruditzen zaizkit, eta pertsonaiak txotxongiloak bailiran daude tratatuta.

Izen-abizenak dituzten txotxongiloak, nolani dela ere.

Izen-abizenak, edo alfabetoko letrak, D jauna esaterako. Izen horiek, berez, anonimotasunaren mugan aritu nahi dute.

Surrealismora itzulita, oraingo honetan aproposena ez zelako baztertu duzu. Horretara itzuliko ote zara berriro?

Ez dut uste. Irakurtzeko interesgarria zait oso, baina surrealismoaren, haren suzedaneoen eta baita ondorengo formak bukatuta daude neurri handi batean, nire liburu hura barne.

Bestalde, surrealismoa egin zuten gehienak komunistak ziren, eta maila ideologiko politikoan oso identifikatua senti naiteke, baina maitasunaren praktiketan oso gauza narzistikak egin zituzten azkenerako. Objektu gisa, objektu fantastiko gisa, ikusi zuten mundua, baita maitatzen edo desiratzen zituzten objektuak ere. Nire baitan gertatzen direnak esplikatzeak ez dit interesik pizten.

Baliabide estetikoak, tipografikoak baliatu dituzu.

Parentesiak-eta? Garbia izan nahi nuen, eta halaber, tartean esate baterako pankartak idazteko aukera izan nahi nuen, pankartak, pegatinak... Horretarako erabili ditut kortxeteak, letra larriak edo bertsalitak, planoak bereizteko, argiago izan dadin. Tipografia berean idatzi izan banitu nahasmena sor nezakeen. Intrusioak oso garbi identifikatzen dira horrela.

Juan Cruz Lakastari “Harrigarria, poesia liburu hau ulertu egin dut” esan omen zion lagun batek. Horixe izan da, hain zuzen, nire helburuetako bat, ulergarria izatea.

Mintza gaitzen izenburuaz. Nor da simplista?

Eztabaida ekiditeko baliatzen da hitz hori. Bakarren bati simplista dela esanda, edo bote-



G.U.G.

dagoen ala sinplisten aurka. Seguru aski, bi eremuetan dago zakurra. Zuri-beltza delako gustatzen zait, mundua binarioki ikustea konplexutasunaren hasiera posible bat da, Men-debaldean behintzat.

Zure poemek kalean azkar egindako erretra-tuak dirudite.

Oso domestikoak dira, telefono konpainia aldatzera doan pertsona bat, tabernan zerbait hartzen ari dena eta albokoei gustatzen ez zaion zerbait entzun diena... Egunerokoan badira bere horretan funtzionatzen duten anekdotak. Beste batzuek zerbait deskriba dezaketela iruditzen zait.

Adibidez. "Zu ezin zara kexatu", behin eta berriz errepikatzen den esaldia da. Eztabaida ekiditeko argudio gisa erabiltzen da sarri. Lana duzunez, ezin zara kexatu, nahiz eta zure lana kaka putza izan. Ideologia menperatzailearen forma egunerokotu horiek gorputzu ditut poemetan.

Sexu kontuak ere nabarmen ageri dira. Hainbesteko pisua al du sexuak gure gizartean?

Hori bada surrealismotik gelditu den zerbait. Andre Bretonek esaten zuen iraultza sexuala izango dela edo ez dela izango. Gure gizartea bisualki oso sexuala da, baina diotenez, praktikan ez da aurreko beste gizarte batzuk baino askoz sexualagoa. Badago sexu hori erakutsi nahia, ez dago pudorerik. Ez da liburu transgresorea, heterosexuala da oro har, baina batzuei eroso egingo ez zaion gaiez mintzo da. Adibidez, uzkiak. Irain gisa erabiltzen da gaur egun, eta oso kontzienteki tratatuta dago. Badira oraindik gorputzeko eremu batzuk ezkutatu behar omen direnak. Bada hor hautu bat.

Hiru zati simetriko egin dituzu.

Poema guztiak istoriotxoak dira. Egiturarik gabe ere joan zitezkeen, baina jende egitura-tuak nahiago izan ohi du izenburu zerrenda luzea baino, hori forma baten barruan ikusi. Liburua eratzeko joko da, ez besterik. Hiru zati horien artean bi interludio daude, poema luzexegoak, arnasteko edo itotzeko, ez dakit, puskatzeko bederen.

Norentzat idazten duzu?

Liburuan agertzen den jende horientzat. Lan kaskarra dutenentzat, aita bananduentzat, hip-hop edo musika klasikoa entzuten dutenentzat. Edo ingurukoentzat, badu zentzu praktikorik ere. Jasanezina da entzutea "Ezin zara kexatu", edo "Hemen hobeto gaude". Beraz, horretarako bada poema bat. Esaldi horien zentzugabekeria azaltzen edo bideratzen saiatu naiz. ■



re posizio batetik tonu egokian ez dela ari, eztabaida eragozteka izaten da helburua. Gatazka jakin bat existitzen ez dela esatea bezalatsu da. Ez bada existitzen ez da zertan horri buruz jardunik. Gustatzen zait. Historian, aro, ikuspegi eta eremu askotatik egin da hori. Miserableak zarete, dirurik ez daukazuelako, eta horrek zuen izaera ere miserable egin du, ez zarete interesgarriak. Beraz bai, miserableak gara, edo maritxuak gara, edo beltz zikinak gara. Hori baldin bada eztabaida saihesteko aitzakia, aizu, iraina gure izen bihurtuko dugu, baina has gaitezen hizketan.

"Liburu hau ia kanpaina baten moduan pentsatu dut. Alegia, halako gaiei buruz hitz egin nahi dut eta horietarako modu eraginkorrenak bilatu ditut".

Zeintzuk sartu dituzu zaku horretan?

Bizi naizen gizartean dagoen jende gehiena: komunak garbitzen dituztenak, web programatzaileak, mekanikoak, langabeak, gauzatoxoak saltzen aritzen diren etorkin papergabeak, biolin-jotzaileak...

Azalean bezala, hortzak erakusten al ditu sinplistikak?

Liburuak sortzen duen desfasetako bat da hori. Ez dago garbi zakurra sinplistiketan